



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko apirilaren 2a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013an zehar azterlan bat egin dezan estimazio objektiboari atxikitako jarduera garrantzitsuenei buruz –beren etekin garbiaren bolumenari erreparatuta edo aitorteen kopuruaren arabera–, haiek alderatuz zuzeneko estimazioaren araubidearen bidezko zerga-ordainketarekin. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan auzibideko tasak ordaintzeko betebeharretik. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion ordainagiririk egin larrialdi zerbitzuetan artatzen den ezein pertsona fisikori. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz eginiko gomendioak. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatea fracking-ik gabeko lurralde deklaratu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus ditzan Nafarroako III. Plan Teknologikoaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Negoziario Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatetik kendu den parte itzultzekoa. Mozioa erretiratzea (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2013ko apirilaren 2tik 5era bitarteko egunetarako lanaldia (8. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013an zehar azterlan bat egin dezan estimazio objektiboari atxikitako jarduerara garrantzitsuenei buruz –beren etekin garbiaren bolumenari erreparatuta edo aitorleen kopuruaren arabera–, haiek alderatuz zuzeneko estimazioaren araubidearen bidezko zerga-ordainketarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013an zehar azterlan bat egin dezan estimazio objektiboari atxikitako jarduerara garrantzitsuenei buruz –beren etekin garbiaren bolumenari erreparatuta edo aitorleen kopuruaren arabera–, haiek alderatuz zuzeneko estimazioaren araubidearen bidezko zerga-ordainketarekin”. Horren jatorria da Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako mozio bat, 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013an zehar azterlan bat egin dezan estimazio objektiboari atxikitako jarduerara garrantzitsuenei buruz –beren etekin garbiaren bolumenari erreparatuta edo aitorleen kopuruaren arabera–, haiek alderatuz zuzeneko estimazioaren araubidearen bidezko zerga-ordainketarekin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013a bukatu aitzin modulu-araubideari buruzko jarduketa-proposamen bat aurkez dezan, aipatu txostenean oinarrituta.”

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza ekonomikoa emateko deialdi berariazkoa egin dezan, Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren bitartez, diruz laguntze aldera generoko indarkeriari bere adie-

razpide guztietan aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak.

Deialdi horrek prebentzio politikak, generoko indarkeriaren biktimentzako laguntza juridikoa eta psikologikoa, biktimei lagun egitea eta abar barne hartuko lituzke, bai zuzenean kaltetutako pertsonentzat, bai indarkeria mota hori zuzenean nahiz zeharka pairatu duten adingabeentzat.

Deialdia toki entitateentzat nahiz gizarte-jarduketako esparru horretan lan egiten duten elkarte partikularrei zuzenduko zaie.

Deialdiak prozedura bat jasoko du, proiektuek, garatu ondoren, generoko indarkera zuzenean nahiz zeharka pairatu duten pertsonen baldintza-hobekuntzan izandako eragina ebaluatzeko."

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan auzibideko tasak ordaintzeko betebeharetik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan auzibideko tasak ordaintzeko betebeharetik."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du hainbat arinen har ditzan hartu beharreko neurriak, pertsona fisikoak salbuetsita gera daitezen auzibideko tasak ordaindu behar izatetik, eta ziurtatze aldera inork ere ez ikustea mugatuta justizia eskuragarri izateko bere eskubidea, auzibideko tasa ordaindu ezin duelako."

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion ordainagiririk egin larrialdi zerbitzuetan artatzen den ezein pertsona fisikori.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion ordainagiririk egin larrialdi zerbitzuetan artatzen den ezein pertsona fisikori".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaion fakturarik egin larrialdi zerbitzuan artatutako inolako pertsona fisikori, haren administrazio-egoera zein ere

den; izan ere, faktura egiteak gaizki-ulertuak eta disuasio efektua eragiten die larrialdietan laguntza jaso beharra duten pertsoneri, eta haien osasuna arriskuan jartzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du salbuespenik gabe aplikatzen dezan otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, Parlamentu honek onetsitakoa eta 2013ko martxoaren 4an argitaratua, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitaie Nafarroan bizi diren pertsoneri".

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz eginiko gomendioak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz eginiko gomendioak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerari buruz egindako azken txostenean jasotako gomendioak aplikatzen.

2. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerari buruzko arauetan egin beharreko aldaketak egin ditzan, proposamen horiek jasotze aldera".

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatea fracking-ik gabeko lurralde deklaratu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatea fracking-ik gabeko lurralde deklaratu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatea fracking-ik gabeko lurralde deklaratu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du erretira ditzan Uharteetako eta

Penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan lehia areagotzen duen Lege Proiektuan biltzen diren neurri gehigarriak; zehazki, haustura hidraulikoko teknikei buruzko neurriak, bai eta teknika horiek 1998ko urriaren 7ko Hidrokarburoen Sektorari buruzko Legearen esparruan sartzeko neurriak ere.

3. Parlamentu honek beste behin babesa erakusten die eredu energetiko jasangarri baterantz bideratutako politikei. Eredu hori honakoetan oinarrituko da: kontsumoa gutxitzea, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak"

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat prestatu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat prestatu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2014an zehar sustatu dezan, Julio Caro Barojaren senitartekoekin lankidetzan, bere jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi-programa bat Iruñean eta Beran"

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius ditzan Nafarroako III. Plan Teknologikoaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius ditzan Nafarroako III. Plan Teknologikoaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako III. Plan Teknologikoaren berrikusketa sakona egin dezan eta azter ditzan Nafarroak zer ahulezia dituen berrikuntzari eta hura ehundura sozioekonomikoan sartzeari dagokienez, eta ateratako ondorioak IV. Plan Teknologikoan isla ditzan.

2. I+G+B delakoan egiten den aurrekontu-ahalegina areagotzea, III. Plan Teknologikoan aurreikusitako mailatik abiatuta, eta maila hori pixkanaka areagotzea, termino errealetan, IV. Plana amaitu bitartean.

Bereziki:

- Berrikuntza-politiken ikuspegi soziala eta ingurumenekoa indartzea, bereziki kontuan hartuta bilakaera sozioekonomikoak ziurrenik ekarriko dituen aukerak mendekotasunaren gisako alorrean.

- I+G+Baren arloan, enpresarteko elkarlana sustatzera eta indartzera bideraturiko neurri zehatzak ezartzea.

- Unibertsitateko, eta bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoko I+G+Ba finantzatzeko aurrekontuetako kontusailak handitzea.

- Ahalegina egitea Lanbide Heziketa Zientzia-Teknologia-Industria sisteman egiazki integra dadin, bai eta diziplinarteko elkarlana bultzatzea, bereziki diziplina teknikoen eta giza eta gizarte-diziplinen artekoa.

- Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko zentro teknologikoetan lehentasuna ematea masa kritikoa areagotzeko, ikertzeko aukerak eta horretarako ekipamenduak handituz, eta ez administrazio-kontzentrazioaren bidetik.

3. Nafarroako IV. Plan Teknologikoa onetsi dezan 2013ko ekainaren 15a baino lehen, bere edukia berri Parlamentuari eman ondoren".

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Errege Akademiarekin hartutako konpromiso ofizialak bete ditzan.

2. Espainiako Errege Akademiari eta bere fundazioari urtero ordain diezaien ekarpen ekonomikoa.

3. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Planaren barruan informazio-testu bat egin dezan, herritarrek ezagutarazteko Juan Manuel Fernández Pacheco eta bere lana.

4. Espainiako Errege Akademiarekin eta Martzillako Udalarekin lankidetzan, jarduketa-programa bat presta dezan akademia hori sortu zeneko 300. urteurrena ospatze aldera".

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatatik kendu den parte itzultzekoa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 21ean egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen negoziazio prozesu bat has zezan Nafarroako Administrazio Publikoetako

Negoiazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatatik kendu den parte itzultzekoa. Mozio hori 2013ko urtarrilaren 21eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2013ko apirilaren 2tik 5era bitarteko egunetarako lanaldia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2013ko martxoaren 20ko idazkia, non eskatzen baita 2013ko apirilaren 2tik 5era bitarteko lan-astean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta Parlamentuko jarduerarik ez dagoela aurreikusita egun horietako arratsaldeetan, eta Parlamentuaren eta aipatutako Langile Batzordearen arteko 2002 eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2.a) idatz-zatian xedatzen dela Aste Santuaren ondoko astean goizeko lanaldia ezarriko dela Parlamentuko lanaren aurreikuspenek horretarako aukera ematen badute.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko 2008-2011 eperako

Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta arestian aipaturiko Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. 2013ko apirilaren 2tik 5era bitarteko egunetan goizeko lanaldia ezartzea. Halere, hori ez da eragozpen izanen, goizeko ordutegitik kanpo Legebiltzarreko lana baldin badago, etorri beharreko langileak etor daitezen, eta haien prestasuna espero da zerbitzu-ematean sor litezkeen beharri-zanen araberako erantzuna emateko.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko Zerbitzburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera